



euskal
etnopoloa
ethnopôle
basque

EGITARRAUA

MIN TE GI A

2020
2021



SAR HITZA



Frantziako Kultura ondare immaterialaren Batzorde Nazionalak Euskal Kultur Erakundeak (EKE) eta EHES (Gizarte Zientzietako Goi Mailako Ikasketen Eskola) eskolak aurkeztu partaidetzari « Ethnopôle basque - Euskal Etnopoloa » labela eman dio 2017ko urtarrilaren 12an.

Laugarren urtea segidan egiten du **EKE-k, EHES-ekin partaidetzan, antolatzen duela mintzaldi ezberdinetaz osatu mintegi bat, etnopoloren egitasmo zientifiko eta kulturala galdezkatzen duena.**

Osasun egoeraren arabera, mintzaldiak on line edo presentzian iraganen dira.

 **URTARRILAREN 21A, OSTEGUNA**

 **18:00-20:00**

 **EUSKAL MUSEOA (BAIONA)**

Ondarea eta sorkuntza : begirada gurutzatu bat kontalaritzari

Mintzaldi honen helburua egungo euskarazko ahozko kontalaritzan ondareak eta sorkuntzak duten lekuaz hausnartzea da, azken hamarkadetan euskarazko ahozko kontalariek bersortu duten mintza jardunen azterketaren bitartez.

Leire DIAZ DE GEREÑU LASAGA, doktore eta *Hizkuntza eta Euskal Ikasketak Saileko* irakasle (UPV / EHU)

Euskaraz, bat-bateko itzulpena frantsesez

Osasun egoeraren arabera, mintzaldia on line edo presentzian iraganen da.

 **OTSAILAREN 18A, OSTEGUNA**

 **18:00-20:00**

 **EUSKAL MUSEOA (BAIONA)**

Euskal raparen hausnarketa antropologiko historikoa

Rapa Euskal Herriko musika alternatiboen eszenan bere lekua ari da egiten. Euskal raparen mugimendua ikertzea oso garrantzitsua da aldaketa politiko-sozialek eta estetika musikalaren birmoldatzeak dituzten bide paralelo eta gurutzatuak hausnartzeko.

Eric DICHARRY, antropologian doktore eta ikertzaile independente

Euskaraz, bat-bateko itzulpena frantsesez

Osasun egoeraren arabera, mintzaldia on line edo presentzian iraganen da.

 **MARTXOAREN 18A, OSTEGUNA**

 **18:00-20:00**

 **EUSKAL MUSEOA (BAIONA)**

Keinuen hizkuntzak: gizon-emazteen hizkuntza-gaitasunak hobeki ulertzeko aukera

Anitzetan, keinuen hizkuntzak komunikazio sistema pantomimiko unibertsal gisa kontsideratuak dira, behar bezalako gramatkarik gabekoak eta ez ahozko hizkuntzak bezain aberats eta konplexuak. Mintzaldi horretan, Carlo Geraci-k Frantziako keinuen hizkuntza aipatuko du erakusteko karakterizazio horietarik bihirik ere ez dela egokia eta keinuen hizkuntzak ahozko hizkuntzak bezain naturalak direla. Alabaina, keinuen hizkuntzen lexikoa objektuen irudikapen ikonikoaz haratago joaten da eta haien gramatika-egiturak ez du deus ikustekorik ahozko hizkuntzarenarekin ; zenbait alderditan, ahozko hizkuntzak baino aberatsagoak dira ere. Bestalde, keinuen hizkuntzak giza mintzairaren erresilientziaren froga dira. Bukatzeko, Carlo Geraci-k keinuen hizkuntzaren erabilpenaren egokitasuna aipatuko du elkorren komunitatearen hizkuntza nagusi bezala.

Carlo Geraci, IJN ikerketa taldeko zuzendari, Jean Nicod Institutua (École normale Supérieure)

Keinu hizkuntzaz, bat-bateko itzulpenak euskaraz eta frantsesez

IKER-ekin ko-antolatua, CNRS-eko UMR 5478, Euskara eta euskal testuen ikerketa-zentroa

Osasun egoeraren arabera, mintzaldia on line edo presentzian iraganen da.

 **APIRILAREN 15A, OSTEGUNA**

 **19:00-20:30**

 **BAIONAKO MEDIATEKA**

Bonaparte printzearen euskal euskalkien ikerketa: lanketa zientifiko eztabaidaezina?

1856-1869 bitarteko urteetan Luis-Luziano Bonapartek abiatu zuen euskal dialektoen sailkatzeko eta biltzeko lan erraldoia, tokiko hainbat euskararen puntako adituen ekarpena eta lana antolatzen zituela.

Kepa Altonagak euskararen historian mugarri izan zen egitasmo honen irakurketa kritikoa proposatzen digu.

Kepa ALTONAGA, UPV / EHUko biologia irakasle eta idazle

Euskaraz, bat-bateko itzulpena frantsesez

BILKETA-rekin ko-antolatua, Euskal funtsen ataria

Osasun egoeraren arabera, mintzaldia on line edo presentzian iraganen da.

 **MAIATZAREN 6A, OSTEGUNA**

 **17:00-20:00**

 **EUSKAL MUSEOA (BAIONA)**

Euskal paisaiak margolarien eskutik (1850-1930)

Mintzaldi-ibilaldia **Sabine CAZENAVE**-rekin, Euskal Museoko Kontserbatzaile nagusia

Paisaia eta lurraldetasuna Euskal Herrian: bilakaera baten historia

Herrialde orok badu bere paisaia, kultura eta bilakaera historikoaren ondorioz sortua. Euskal Herriari dagokionez, paisaiaren gaiak indarra hartzen du XIX. mende amaieratik aurrera. Bide batez, paisaia eta euskal nortasunaren arteko harreman estua ematen da. Maitane Ostolazak euskal paisaiarekin zerikusia duten diskurtso eta praktiketara hurbiltzea izango du helburu gisa, lurraldetasunaren ikuspegitik abiatuz.

Maitane OSTOLAZA, irakasle Nanteseko unibertsitatean

Euskaraz, bat-bateko itzulpena frantsesez

Osasun egoeraren arabera, mintzaldia on line edo presentzian iraganen da.

ARGIBIDEAK

Euskal Kultur Erakundea

Lota Jauregia

64 480 UZTARITZE

www.eke.eus | www.etnopoloa.eus

0 (033) 5 59 93 25 25

info@eke.eus

ANTOLATZAILEAK



BASQUE ANTHROPOLOGICAL
RESEARCH INSTITUTE
on Music, Emotion and Human Societies

PARTAIDEAK

